

GAIA: BIDEBI BASAURI ERANTZUKIZUN MUGATUKO SOZietateAREN BITARTEKO PROPIO PERTSONIFIKATUAREN DEKLARAZIOA.

BALDINTZAK BETETZEN DIRELA EGIAZTATZEN DUEN TXOSTENA

Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeak (hemendik aurrera, SPKL), Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauen transposizioa egiten duenak Espainiako ordenamendu juridikora, kontrol-araubide zorrotza ezarri du bitartekoei egindako mandatuei dagokienez, bere Hitzaurrean adierazten duen bezala. *Legean, kontratazioari buruzko zuzentaru berriaren jarraibideei jarraituz, gehiagotu egin dira entitate hauek bete behar dituzten eskakizunak, eta, horrekin, saihestu egiten da lehia askearen printzipioari kalte egin diezaioketen zuzeneko adjudikazioak egitea. Hemen, baldintza hauek aurkitzen dira, esate baterako: «bitarteko propietzat» hartzen den entitateak bitarteko pertsonal eta material egokiak eduki ditzala ematen zaion mandatura betetzeko, gainera duen botere adjudikatzailaren baimena izan dezala, enpresa pribatu baten partaidetzarik ez dezala izan eta merkatuan ezin dezala aurrera eramanez libreaki bere jardueraren ehuneko 20 baino gehiago».*

Kontrol hori osatu egin behar da Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean (hemendik aurrera, SPAJL) jasotako erregulazioarekin. Zehazki, lege horren 86.1 artikulua ezartzen duenez, sektore publiko instituzionaleko entitateak botere esleitzailen eta botere esleitzailen ez diren gainerako ente eta sozietateen baliabide propio eta zerbitzu teknikoak jo ahalko dira baldin eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 32. eta 33. artikuluetan ezarritako baldintza eta betekizunak betetzen badituzte; eta 86. artikuluan 2. atalean zehazten duenez, baliabide propio eta zerbitzu teknikoak joko dira baldin eta egiaztatzen bada sorrerako arau edo akordioaren arabera haien sozietate-xedarekin bat datorren jardueraren sektorean prestazioak emateko baliabide nahiko eta egokiak izateaz gain inguruabar hauetako bat gertatzen dela: Kontratazio publikoa baino aukera efizienteagoa izatea, eta iraunkorra eta efikaza izatea errentagarritasun ekonomikoko irizpideak aplikatuta, edo beharrezkoa izatea segurtasun publikoko arrazoiengatik edo baliabide propioak edo zerbitzu teknikoak emandako ondasun edo zerbitzuak edukitzeko presarengatik

Bitarteko propioa eta zerbitzu teknikoak deklaratzeko proposamenarekin batera, justifikazio-txostena aurkeztu behar da, aipatutako legean ezarritako baldintzak betetzen direla frogatzeko.

1. TXOSTENAREN XEDEA

Txosten honen xedea da BIDEBI BASAURI S.L. erakundea Basauriko Udalaren bitarteko propio pertsonifikatutzat hartzeko behar diren baldintzak betetzen direla justifikatzea, Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 32. artikuluan eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 86. artikuluan ezarritakoaren arabera.

2. BITARTEKO PROPIOAREN IZAERA JURIDIKOA

2010eko otsailaren 22an BIDEBI BASAURI S.L. merkataritza-sozietatea eratzekeo eskritura publikoa egin zen Ignacio de Miguel Durán notarioaren aurrean, 140 zenbakidun protokoloarekin. Horren bidez bete ziren Basauriko Udalaren Udalbatzak 2009ko irailaren 24ko, urriaren 29ko eta abenduaren 30eko osoko bilkuretan onetsitako erabakiak.

Honako hauek dira sozietatearen xedeak:

Basauriko Udalak Hiri-antolamenduko Plan Orokorrean eta plan partzialetan aurreikusitako hirigintza-eragiketak kudeatzea eta gauzatzea; eta, oro har, Udalak edo haren mendeko erakundeek hirigintza-politika garatzeko Sozietateari agindutako plan, egitarau eta ekintza guztiak kudeatzea eta gauzatzea.

Eraikinak, etxebizitzak eta beste edozein tituluren bidez eskuratutako lurzoruetan dauden ostatu, lokal eta aparkaleku mota guztiak sustatzea, eskuratzea, kudeatzea eta bertan eraikitzea, dela babes publikoko araubidean, dela araubide librean, dela prezio mugatuan.

Sozietatearen edo Udalaren titulartasuneko ondasunak, nahiz partikularrek edo beste erakunde batzuek (haiekin hala hitzartu bada) sustatutako ondasun higigarriak edo higiezinak esleitzea; eta, hala badagokio, ondasun horiek jabetzan, azalera eskubidean, alokairuan nahiz logela eskubidean ematea eta/edo zuzenbideak jabetza entregatzeko onartutako beste edozein modu baliatzea.

Sustatzea besteren etxebizitza hutsak alokatzea edo horien erabilera lagatzea.

Eraikitako ondarearen birgaitzea sustatzea.

Sozietatearen edo Udalaren titulartasunekoak diren, eta Sozietatearen esku utzi diren eraikinak eta gainerako ondasunak kudeatzea, zaintzea eta mantentzea, bai eta horiek birgaitzea ere.

Lehenago adierazitakoekin lotutako beste edozein zerbitzu ematea, eta/edo horien osagarri diren edo horiekin loturaren bat duten jarduerak aurrera eramatea.

Udal lurzoru-ondarearen kudeaketa dinamizatzea, lurzoru horrek duen xedea betetze aldera.

Oro har, Udalak zein beste erakunde publiko eta pribatuek hirigintzaren eta lurzoruaren arloan agindutako kudeaketa-lanak egitea, haiekin batera arlo horietan jardutea eta laguntza ematea.

3. ADMINISTRAZIOAK BITARTEKO PROPIOAREN GAINEAN DUEN KONTROLA

Sektore Publikoko kontratuen 9/2017 Legearen 32. artikularen arabera, Udalak bere zerbitzuetan egiten duenaren antzeko kontrola egiten du BIDEBI BASAURI S.L.ren gainean.

Kontrol hori honela adierazten da:

Sozietatea Basauriko Udalak kontrolatzen du zuzenean. Azpimarratzekoa da Basauriko alkatea dela sozietateko presidentea, eta Batzar Nagusiko kideak Toki Korporazioaren Udalbatzakoak direla.

Bere jarduera ia guztiak administrazio horrek emandako mandatuak betetzeko egiten ditu, eta egoera hori islatzen da sorreratik 2014ra arte lortutako diru-sarreraren iturrian.

Partizipazio guztiak, HIRUROGEI MILA EURO (60.000,00 euro), udal-titulartasunekoak dira, eta horrela izan da sozietatea eratu zenetik, inolako aldaketarik gabe.

Hori guztia, BIDEBI BASAURI S.L. enpresaren Zuzendaritza-Gerentziak egindako txostenean adierazi bezala (espedientean jasota dago).

Bestalde, adierazi behar da BIDEBI S.L.k Basauriko Udalari fakturatzen dizkiola kudeaketa-mandatu espezifikoa, eta zenbatekoa bat datorrela agindutako lanak dakarren gastuarekin.

Nolanahi ere, eta 32.2.a) artikulua in fine xedatutakoarekin bat etorriz, enkarguaren xede diren jardueretarako tarifa-multzo bat prestatu beharko da, eta Basauriko Udalak onartu beharko du.

4. ADMINISTRAZIOAREN ALDE EGINDAKO JARDUERA NAGUSIAK

BIDEBI BASAURI S.L. erakundeak Basauriko Udalarentzat edo haren bitarteko propio gisa jarduten duten beste erakunde batzuentzat egiten du bere jardueraren % 80 baino gehiago. Kopuru hori bat dator Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 32.2 artikulua eskatutakoarekin.

Bere xedea betetzeko, sozietateak, Udalaren tresna gisa, honako hauek egin ditzake, besteak beste:

- Lurraldea eta udalerria antolatzeko era guztietako azterlan, proiektu eta antolamendu-planak, honako hauek barne: plangintza orokorrekoak nahiz partzialekoak; hirigintza kudeatzeko dokumentuak, eta bere eskumenekoak diren edo Udaleko organo eskudunek gehigarri gisa agindutako urbanizazio- eta erakuntza- proiektuak. Horrek guztiak ez du eragotziko udal organoek eta Administrazioako beste organo batzuek dokumentu horiek aurkeztu eta onartzeko dituzten ahalmenak baliatzeko aukera.
- Hitzarmen batzarretan parte hartzea jabe gisa edo Udalaren ordezkari gisa, eta egoki iritzako erabakiak hartzea. Nahitaezko desjabetzeen onuraduna izatea, hirigintza-kudeaketan sistema hori erabiltzen denean.
- Adierazitako hirigintza-eragitatei lotutako urbanizazio-, azpiegitura-, zerbitzu-, zuzkidura- nahiz ekipamendu- proiektuak eskuratzea edo gauzatzea.
- Adierazitako hirigintza-eragiketei lotutako urbanizazioa egitea edo urbanizazio-, azpiegitura-, zerbitzu-, zuzkidura- nahiz ekipamendu- proiektuak gauzatzea
- Sozietaterenak diren, hari esleitu zaizkion edo haren esku utzi diren era guztietako eraikinak, obrak eta zerbitzuak kudeatzea eta ustiatzea.

Eta, zehazki, honako jarduerak hauek egin ditu Basauriko Udalarentzat:

- Etxebizitzaren eta hirigintzaren arloan interesa duten pertsonen informazioa eta laguntza ematea.
- Etxebideko etxebizitza babestuen eskatzaileen erregistroan alta eta baja emateko eta aldaketak egiteko eskaerak izapidetzea.
- Sarratu, San Migel Mendebaldea, Azbarren eta San Fausto – Bidebieta- Pozokoetxe eremuen hirigintza-kudeaketa.
- Soloarteko aparkalekuko garaje-partzelen alokairu-kontratuen kudeaketa, erosteko aukerarekin.
- Etxebizitzak birgaitzeko laguntzei (udalekoak eta/edo autonomikoak) buruzko informazioa eta/edo izapidetza.

Hori guztia, BIDEBI BASAURI S.L. enpresaren Zuzendaritza-Gerentziak egindako txostenean adierazi bezala (espedienteen jasota dago).

5. BITARTEKO PERTSONALAK ETA MATERIALAK

Basauriko Udalak emandako mandatuak betetzeko, BIDEBI BASAURI S.L. erakundeak beharrezko giza baliabideak eta baliabide materialak ditu, bere gaitasun teknikoa eta operatiboa bermatzeko. Ondoren, erakundeak dituen baliabideak zehaztu dira:

Giza baliabideak: zuzendaritzako lanpostu bat (% 100eko lanaldia), administrari lanpostu bat (% 100eko lanaldia) eta administrari laguntzaile lanpostu bat (% 57,14ko lanaldia).

Baliabide materialak: Lokala Lehendakari Agirre kaleko 61. zenbakian, udal-titulartasunekoa eta Udalak doan lagatakoa, eta 4 postu informatiko eta funtzio anitzeko inprimagailu bat.

Bitarteko horiek nahikoak eta egokiak izan daitezke Administrazioaren mandatuak aurrera eramateko, aplikatzeko den araudiaren ondoriozko eskakizun teknikoak eta operatiboak betetz.

6. MANDATUAREN ERAGINKORTASUNAREN ETA EFIZIENTZIAREN JUSTIFIKAZIOA

BIDEBI BASAURI S.L. erakundeari emandako mandatuak efizientzia-arrazoiengatik justifikatuta daude, haren jardunak baliabide publikoen optimizazioa bermatzen duelako eta kontratatutako zerbitzuen kontrol zuzenagoa eta zorrotzagoa ahalbidetzen duelako. Gainera, BIDEBI BASAURI S.L. erakundearen eskumen espezializatuek abantaila tekniko eta ekonomikoak eskaintzen dituzte, kontratazio irekiarekin aldean.

7. ONDORIOA

Beraz, egiaztatuta geratu da BIDEBI BASAURI S.L. erakundeak betetzen dituela Basauriko Udalaren bitarteko propio pertsonifikatutzat hartzeko baldintzak, Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 32. artikuluan eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 86. artikuluan ezarritakoa betetz.

8. ERANSKINAK

Txosten honekin batera doa erakundearen estatutuak aldatzeko proposamena, SPKLren 32.2.c) artikulua eskatzen duen edukiarekin.

1. art. Izena.

1.- Basauriko Udalak "BIDEBI BASAURI, S.L., Basauriko Udalaren bitarteko propioa" izeneko merkataritza-izaerako hirigintza-sozietatea eratu du.

2.- Sozietatea, hirigintzako eta toki araubideko legediak xedatzen duenaren babesean sortua, erantzukizun mugatuko merkataritza sozietatea izango da, eta Udala izango da bere titular bakarra.

3.- Sozietatea bitarteko propio instrumentala da Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 86. artikulua ondu ondorioetarako, eta Basauriko Udalaren bitarteko propio pertsonifikatua eta zerbitzu tekniko Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 32. artikulua ondu ondorioetarako, eta, horrenbestez, enpresaren xede diren gaietan agintzen zaizkion lan guztiak egin beharko ditu.

Mandatu horiek Udalbatzaren Osoko Bilkurak edo Alkatetzaren tituluak erabakiko ditu, bi organoen arteko eskumenen legezko banaketaren arabera, legezotasun-irizpideei jarraiki eta berariaz zehaztuta xedea, garatu beharreko jardura zehatzak eta indarrean dagoen aurrekontu-araudiaren arabera finantzaketa.

Sozietateak Basauriko Udalarekin duen harremana, bitarteko propio pertsonifikatua eta zerbitzu teknikoa den aldetik, instrumentala da, eta ez kontratuzkoa, eta, ondorio guztietarako, barrukoa eta mendekoa da.

Sozietateak ezin izango du parte hartu Basauriko Udalak deitutako lizitazio publikoetan; hala ere, lizitatzailerik aurkezten ez bada, lizitazioaren xede den prestazioa gauzatzeko eskatu ahal izango zaio.

Mandatuak gauzatzeko behar diren kontratu guztiak Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen aginduen mende jarriko ditu sozietateak, sozietatearen izaeraren eta kontratu horien motaren eta zenbatekoaren arabera bidezkoak diren baldintzetan.

Indarrean dagoen Sektore Publikoko Kontratuen Legean xedatutakoaren arabera, sozietatea botere esleitzailerik ez duen erakunde publikoa da, eta ez administrazio publikoa. Ondorioz, kontratuen prestaketa eta esleipena lege horren 317. eta 318. artikuluetan xedatutakoaren arabera arautuko da, eta ondorioak eta azkentzea, berriz, zuzenbide pribatuko arauen arabera, lege horren 319. artikuluan ezarritako salbuespenei kalterik egin gabe.